

Iván Giménez

# Ariznavarrako greba: duintasunezko 2 urte, 9 hilabete eta 17 egun



IZAN TA ESAN

001

# Ariznavarrako greba: duintasunezko 2 urte, 9 hilabete eta 17 egun

## Aurkibidea

- 3** 1 Ezerezetik duintasunerako bidea
- 4** 2 Gaizki hasten den hori...
- 7** 3 Erresistentzia-kutxa, grebari ekiteko ezinbesteko faktorea
- 10** 4 Zerbitzu publikoen alde borrokan
- 13** 5 Lanerako lehengaia:  
laguntza behar duten gizon-emakumeak
- 16** 6 Gatazka kalera ateratzea,  
behar-beharrezkoa
- 19** 7 Femenino plurala: emakume solidarioak
- 22** 8 Greba etxera ere iritsi zen
- 24** 9 Giroa puri-purian:  
hauteskunde sindikalak eta EEEd
- 26** 10 Argi-izpi bat tunelean: garaipen-eguna
- 29** Grebak iraun zuen bitartean,  
ama-grebalariak edukitako umeak
- 30** Gatazkaren hasiera hasieratik  
aritu ziren grebalariak
- 34** Irabazi duzue (olerkia)

# 1 Ezerezetik duintasunerako bidea

*“Hain dira txarrak gure lan-kondizioak, ezen zer galdurik ez baitugu” (2002an esana)*

*“Soldata eta lan-kondizio duinak ditugu; inork ez gaitu menderatuko. Are garrantzitsuagoa: eredu insolidario eta pribatizatzaile baten hedapena gerarazi egin dugu” (2010eko abenduan esana)*

Zortzi urteko aldea dago bi esaldi horien artean. Denborak ez ezik, ordea, beste zerbaitek ere bereizten ditu: egoera aldarazi zuen borroka batek; katearen mailarik ahulena indartu zuen borroka batek (hilean 590 euro irabazten zituzten ehun bat emakume ziren, interes desberdinak zituztenak, eta beren buruan konfiantza handirik ez), elkartasun-, kemen- eta erresistentzia-uhin izugarri batean. Ez Arabako Aldundiak, ez Ariznavarrako egoitza geriatrikoko (Gasteiz) zuzendaritzak, ez Mapfreak (enpresa erraldoia) ezin izan ditu menderatu emakumeok.

Bi greba sonatu egin dituzte Ariznavarrako emakumeek: lehenbizikoa (zortzi hilabetekoa), 2002tik 2003ra; bigarrena (1.136 egunekoa), 2008ko otsailaren 18tik 2010eko abenduaren 16ra. Ez da izan, guk dakigula, lan-gatazka hain luzerik Europa osoan, ezta, seguru aski, borrokarako irmotasun, konfiantza eta trinkotasun hain eredugarrikerik ere.

“Hain zen nabarmena arrazoi genuela, ezen aurrera egitea beste biderik ez geneukan”. Horrela laburbildu dute egoera ordezkari sindikalek (ELAkoak, guztiak), borrokaren buru jardun eta zortzi urteotan 100 emakume eta hiru gizonezkoren laguntzaile eta bitartekari izan direnek. Epe horretan, lan-munduko katearen begirik ahulena izatetik borroka-eredu izatera aldatu dira langile horiek, eta haietaz harro gaude ELAko kideok (100.000tik gora). Vicky Holgado, Beni Rubio, Ana González, María Eugenia Nagore, Rebeca Ochoa, Yolanda Briz eta Ainhoa Viteri dira urte hauetako mezuaren eta kronikaren ahotsa. “Urte gogorak, oso gogorak; baina, egoera berean, berriro ere gauza bera egingo genuke. Borroka ez da amaitu, irabazi dugunari eutsi egin behar diogu eta. Atzerapausorik? Ezta bat bera ere!”.

## 2 Gaizki hasten den hori...

“Gutako asko 2001ean hasi ginen lanean egoitzan, ireki zuen urtean, alegia. Garai hartan, 590 euro kobratzen genuen hilean, eta 1.800 ordu egiten genuen lan urtean. Hala jarraitzerik ez zegoen, eta antolatzea erabaki genuen. ELAk eskaini zigun horretarako aukera. Hamar bat afiliatu izango ginen sasoi hartan”. Handik zortzi urtera, 100 bat ziren. Hauteskunde sindikaletara aurkeztea izan zen lehen urratsa. Bederatzi lagunek (ELAkoak, guztiak) osatu zuten enpresa-batzordea, 115 langile-ren ordezkari.

Horrela hasten da historia sindikala. Egoitzarena, ordea, askoz ere lehenago abiatu zen, 1998an. Urte hartan, Arabako Aldundiak Mapfre-Quavitaeri esleitu zion Ariznavarra egoitzaren kudeaketa, 45 urterako. Artean, eraikitzeke zegoen egoitza. Publikoa izan behar zuen egoitzaren titulartasunak; kudeaketak, ordea, pribatua. Araban ez zegoen, ordura arte, eredu misto horren adibiderik, eta, urteotako gertakariak ikusita, ez da hedatuko. Ariznavarrako langileek sare publikoko beren lankideen lan bera egiten zuten (eta dute), baina askoz ere kondizio okerragoetan, nahiz eta sare publikokoa izan, berez, egoitza. “Nolanahi dela ere —diote, behin eta berriro—, inoiz ez dugu izan funtzionario izateko asmorik, eta greben helburua ez zen hori, ezta soldatak eta lan-baldintzak haienekin parekatzea ere, gure helmugak hori izan behar badu ere, borrokatzen eta hobetzen jarrai dezagun”.

Orain, urteen joanak ematen duen ikuspegitik begiratuta, balirudike lehenbiziko greba hura (zortzi hilabetekoa) entsegua edo entrenamendua izan zela, baina bizi propioa izan zuen greba hark. “Greba bat hasten duzunean, inoiz ez duzu pentsatzen hainbeste iraungo duenik. Hobe, kasik, ez jakitea zenbat iraun behar duen. 2002an, baina, ez genuen zer galdurik: soldatak hutsaren parekoak ziren, eta laneko kondizioak, oso txarrak. Lanik gabe geratzen baginen —diosku Vicky Holgadok—, aurkituko genuen beste bat; eta zerbait irabazten bagenuen, berriz, bada, askoz hobe. Edozer gauza zen hobeagoa hura baino”.



## Greba 2 hitzetan

Begoña Vázquez • Gasteiz Eskualdeko Arduraduna

### “Giza kalitatea”

**T**aldean jarduteko gaitasuna izan zen gatazkaren alderdi nagusietako bat. Elkarrekiko batasun-maila handia lortu zuten, ia ehun lagun ziren arren. Horrek trinkotu egin zituen, eta edozertarako prestatu. Ez dakit zerikusirik baduen horretan emakume izateak, baina harreman horiei eusteak eta zaintzeak garrantzi izugarria izan uen. Beste hitz batzuekin esanda: grebalarien arteko

berotasuna eta kidetasuna oso garrantzitsua izan ziren.

Arabako Aldundiak bizkarra eman zien grebalariei, gatazka hark hankaz gora jartzen baitzuen zerbitzu publikoak pribatizatzeko eredu politikoa, lau sosen truke lan egin behar duten emakumeen kaltetan zerbitzu horiek irabazi-asmodun enpresei ematen dizkien eredia alegia.

Zortzi hilabete iraun zuen greba hark, eta Aldundiaren, Mapfreren eta ELAren arteko hitzarmena sinatzean (audio bat ondoren) amaitu zen. Soldatak % 121 igo ziren, eta urtean 110 lanordu gutxiago egitea adostu zen, hitzarmenak iraun behar zuen bost urteko epean. Diru publikoarekin ordaindu zen itun haren kostua; beraz, “enpresak lehengo etekin berak ateratzen jarraitu zuen”.

2007ko abenduaren 31ra arteko indarraldia zuen itunak. Egun beltza izan zen hura langileentzat. “Arratsalde hartan bertan, Gabon zahar egunean, Mapfre-Quavitaetik deitu eta esan zidaten hitzarmena bertan beherra uzten zutela eta sektoreko lan-hitzarmena (espainiar estatukoa) aplikatuko zigitela aurrerantzean”, gogoratu digu Vicky Holgadok. Egun batetik bestera, langile baten batez besteko hileko soldata 1.390 eurotik 860 eurora jaitsi zuten. “Ia soldataren erdia zen, baina diferentzia hori plus pertsonal finko gisara ordainduko omen ziguten lehendik lanean ari ginenoi. Horrela sartu nahi izan ziguten zirria, eta, bide batez, langile berri guztiei estatuko hitzarmena ezarri”. Alegia, handik aurrera kontratatzen zituzten langileek 500 euro gutxiago kobratuko zuten, beti. Soldata-eskala bikoitza —“bidegabea eta onartezina”— aplikatu nahi zuten.

**GASTEIZKO ARIZNAVARRAKO GREBA  
DUINTASUNEZKO 2 URTE, 9 HILABETE ETA 17 EGUN**

Ariznavarrako langileak, dena den, ez zeuden lotan, eta hitzarmen-proposamen bat aurkeztua zuten hilabete batzuk lehenago. Baina Mapfre-Quavitaeren jarrerak bizkoru egin zuen prozesua. “Halako batean, ia dena kentzea erabaki zuten”, laburbildu digu María Eugenia Nagorek. “Eta ezin bada horrelakorik onartu”. Handik aurrera, itxita aurkitu zituzten ate guztiak. “Greba-abisua eman behar izan genuen”. 2008aren hasiera zen, eta ez zuten inondik ere susmatzen zenbat iraugo behar zuen gatazka; are gutxiago mitikoa bihurtu behar zuela. “Zer galdua bagenuen orduan; ez zen 2002ko egoera bera”, diote. “Aldundiak dirutza ordaintzen zion Mapfreri, baina nahi zuena egiten uzten zion”. Alderdi politikoekin zenbait bilera egin eta gero, baziruzien, halako batean, konpondu egingo zela arazoa. “Mundu guztiak arrazoa ematen zigun, hitz ederrak esaten zizkiguten, baina inork ez zuen ezer egiten; EAJk (alderdi horrek agintzen orduan Aldundian) itxaropenak eman zizkigun, baina zerbait gertatu zen 2008ko urtarrilean, eta, handik aurrera, EAJk ez zuen jada gurekin hitz egin nahi izan”, gogoratu dute ELAko ordezkariak. Etsipen-giro hartako bitxikeria gisara, 2002-2003ko greba amaitzean EAJk bidalitako telegrama bat gordeta daukate langileak. “Zorionak ematen zizkigun EAJk, eta gure egoera bidegabea zela zioen”. Baina antzeko beste gatazka bat (aurrekoa baino gogorragoa, gero ikusi zenez) lehertzeaz zenean, “ezer



ez; ez zuten ezer jakin nahi, langileen eta enpresaren arteko auzia omen zen eta”.

### 3 Erresistentzia-kutxa, grebari ekiteko ezinbesteko faktorea

Greba (partziala, hasieran), 2008ko otsailaren 18an hasi zen, ELAk bultzatuta. USOk ere bat egin zuen grebarekin, eta greba-batzordeko kide izan zen, hasieran, sindikatu horretako ordezkaria. “Handik sei hilabetera, lanera itzuli ziren USOkoak, amaitu egin baitzitzaien erresistentzia-kutxa (txikia). Baina ELAk aurrera jarraitu zuen”. Esan beharrik ere ez dago erresistentzia-kutxa funtsezko elementua izaten dela horrelakoetan, haren laguntzarik gabe oso langile gutxik jasan baitezakete hain gatazka luzea. Ariznavarran, hiru langilek erabaki zuten ez afiliatzea, horrek izugarrizko sakrifizioa (pertsonala eta ekonomikoa) eragin arren. Gainerako langileak ELAra afiliatuta zeuden. Grebaren zenbaterainokoaz jabetzeko nahitaez kontuan hartu beharreko datua da hori. Egia da antzinasun-maila desberdinak zeudela afiliatuen artean, eta, horrenbestez, erresistentzia-kutxatik ez zutela denek zenbateko bera jasotzen. Alabaina, oztopo izan zitekeena abantaila bihurtu zen, Ariznavarrako langileen arteko elkartasunari esker. Erresistentzia-kutxa edukita ere, “ez dizkiogu inori opa horrelako hiru urte”, diote langileek. Sakrifizio hori eramangarri egiteko, langileen batasunari eta protestaren irmotasunari eusteko, oso garrantzitsuak izan ziren 2002ko grebatik aterako irakaspenak.

“Garai hartan ez zegoen ELAko hainbeste afiliatu, eta, grebari eusteko, kutxa bateratua egin genuen erresistentzia-kutxatik jasotzen genuenarekin. Hartara, langile afiliatu guztiok berdin kobratzen genuen, eta, era berean, diru-kantitate bera galtzen genuen”, azaldu digu María Eugenia



### Greba hitz batean

Luis Fernández • Hainbat-eko Idazkari Nagusia

## “Lidergoa”

**I**noiz ere ez gara egoten horrelako greba baterako prestatuta, baina bigarren greban (2008-2010), askoz ere prestatutagoak zeuden. Nolanahi dela ere, etsaiak (Arabako Aldundia) negoziatioari lehenago ekingo ziola uste genuen, ongi baitzekien gure jendeak ez zuela amore emango.

Garrantzizkoena izan zen zintzotasunari (batez ere) eutsi egin zitzaiola hainbeste denboraz, baina baita komunikatioari ere. Ehun grebalariek une oro jakin zuten zer egiten zen, zer egoeratan zeuden, noiz ari zen negoziatzen, zer unetan zeuden negoziatioak... Hori zela eta, asteen behin batzar orokorra egin behar izaten zen. Baina, 100 asteren buruan, askotan ez da egoten zer kontatu handirik... Une horiek ere gogorrak izan ziren, gatazka suspertzen jarraitu beharra zegoen eta. Bakarren baten animoak behera egiten bazuen, besteek, sarea balira bezala, eutsi eta altxatu egiten zuten.

Hamar urte baziren Arabako Aldundiak egoitza ireki zuela, eta, halako batean, Mapfreri esleitu zion

haren kudeaketa, 50 urterako, jakinik horrelako enpresa batek ez zuela inongo konpromiso sozialik ez langileekiko ez egoitzaren erabiltzaileekiko. Aldundiak, hala eta guztiz, eskuak libre utzi zizkion Mapfreri, eta arazoa ez zela berea esan zuen gatazkak iraun zuen bitartean. Jende horren lotsagabekeriak ohartzeko, hona hemen datu bat: hiru urte haietan, Arabako ahaldun nagusiak ez zuen zituen behin bakarrik ere hartu Ariznavarrako langileak, nahiz eta Aldundiaren zerbitzu publiko bat eskaintzen zuten. Justu kontrakoa egiten du, ordea, enpresa pribatuetan arazorik baldin badago: ordezkariekin hitz egiten du, bizkarretik heldu eta elkarrekin ateratzen dira argazkian.

Euskal Herriko grebarik luzeena izan da, eta EAJK ez du grebalarien ordezkariekin hitz egin ere nahi izan. Aurreko gatazkan, PPK, azkenean, gatazkari adarretatik heltzea erabaki zuen, auzia konpondu beharra zegoela jabetu baitzen. □

Nagorek. “Hain zen gardena formula hura —denok geneukan eskura, eta bistara, kontu bateratua— eta hain ongi funtzionatu zuen, ezen gatazka irabazteko erresistentzia-kutxak zeukan garrantzia frogatu baitzuen”, dio Vicky Holgadok. Aurrekari horrek berebiziko garrantzia izan zuen, eta 2088ko greba hasi zenean, ia langile guztiek ELAko kide egitea erabakia zuten. Masiboa izan zen afiliazioa, eta greban zeuden langileetatik, hiru



bakarrik ez ziren sindikatuko partaide egin. “Diru eta guzti, —diote— ez diogu inori opa horrelako hiru urte igarotzea. Izan ere, hainbeste denbora igarotakoan, soldataren erdia galdu duzu ia, eta are mingarriagoa bihurtzen da kontua grebarekin irabazitako soldata-igoeren atzerapenak ordaintzen dituenen enpresak”. Horra langileentzako kontraesan ankerrenetako bat: “Eskirolek gutxiago lan egin dute (egoitza hustuz joan baita, pixkanaka); guk baino gehiago irabazi dute (osorik kobratu dituzte soldatak; erresistentzia-kutxakoa baino diru gehiago, noski); atzerapenak osorik kobratuko dituzte (gatazkaren amaieran lortutako soldata-igoerari dagozkionak, ia hiru urteko grebaldikoak alegia), eta hori, guztia, gure borrokari esker. Den-dena zor digute”.

Greba hasi zenean, Mapfre-Quavitaek bete egin zuen —2008ko ekainaren 20tik aurrera— enpresa-hitza berran bertan behera uzteko mehatxua. Langileen soldatak bere horretan utzi zituen enpresak, baina estatuko hitzarmeneko 860 euroak jarri zituen oinarritzat, eta gainerakoa, plus pertsonal gisara ordaintzen zuen. Gaueko lanagatik plusa eta beste osagarri batzuk zenbatzean, soldata-murrizketa handia zen hura. Horrez gain, “bidegabekeria larria zen, eta soldata-eskala bikoitzak langile berriei eragingo zien, estatuko hitzarmena soil-soilik kobratuko bailukete egoitzan lanean hastean”. Gatazka gogortzen ari zen, eta are gehiago gaizto-tu zen langileek hau jakin zutenean: aldundiak (EAJ agintean zela) Mapfre-Quavitaeri 2,1 milioi euro ordaindu behar zizkiola, atzerapen gisara. Horrez gain, % 43 igo zen Ariznavarrako egoile bakoitzagatik administrazioak ordaindu beharreko zenbatekoa (plaza/egun kontzeptua). “Erabaki harekin, gainezka egin zuen urak”, diote ELAko ordezkariak. “Aldundiak, 2,1 milioi haiek ordaintzean, ez zion inongo klausularik ezarri enpresari diruaren zati bat gatazka konpontzeko erabil zezan. Mapfrek ez zuen, bestalde, horretarako batere asmorik, eta sasoi hartan hasi zitzaizgun aplikatzen estatuko lan-hitza berran”.

ELAko arduradunak (Izaskun Gana) azaldu digunez, “gure presioaz baliatu zen enpresa, bere interesen aldeko hitzarmen ahalik eta onena lortzeko. Aldundiaren eginkizunak, ordea, gatazka konpontzeko bitartekari-lana egitea izan behar zuen”. Protestak gogortu egin zirenez, atzera egin zuen Mapfre-Quavitaek estatuko hitzarmenaren aplikazioari zego-

kionez, baina ez zuen negoziatzera eseri nahi, nahiz eta Eusko Jaurilaritza bitartekari-lana egiteko prest azaldu (hala argitaratu zuen prentsak 2008ko irailean).

Azpimarratzekoa da Ariznavarrako gatazkaren garrantzia estatuko hitzarmenak inposatzen ari diren egungo testuinguru honetan. Jokabide horren aldeko da, bestalde, Espainiako gobernuak onartu berri duen negoziazio kolektiboaren erreforma. Nolanahi dela ere, Ariznavarrako langileek argi asko ikusi zuten, erreforma baino hiru urte lehenago, estatuko hitzarmena onartzeak “miseria eta soldata-eskala bikoitzak” besterik ez zekarrela. Ez zen inongo kanpaina sindikalen premiarik izan enpresako ELAko afiliatuek antolatzeko, langileak sindikalizatzeko eta hitzarmen propio baten aldeko borrokari ekiteko premia ikus zezaten.

## 4 Zerbitzu publikoen alde borrokan

Ariznavarrako borroka sindikalaren helburu nagusietakoa ez zen, hasieran behintzat, zerbitzu publikoen eta, zehazki, mendekotasunen bat dutenen alde egitea. Alabaina, laster ohartu ziren langileak borroka hark gainditu egiten zuela lan-eremua, kontua ez zela —bakarrik— soldatak igotzea eta lan-kondizioak hobetzea. Gizarte-eredu bat zegoen jokoan, laguntza behar dutenei arreta egokia ematea, eta horrekiko konpromiso soziala eta politikoa. Beste aldean, berriz, hau zegoen: osasun- eta gizarte-zerbitzuak diru-etekinak ateratzeko eremutzat dituztenen ikuspegia, gizakien kaltetan merkatuaren agintea ezarri nahi dutenena.

Alor publikoaren aldeko borrokaren zentzuaz eta garrantziaz jabetzeko, berriro aipatuko dugu Arabako Aldundiaren eta egoitza kudeatzen duen enpresaren arteko harremanaren jatorri merkantilista. Bide batez, langileen tinkotasunaren zergatia ulertzeko, aski zaigu Mapfreri diru publi-

kotik ordaindutako 2,1 milioi euro haiei erreparatzea. “Aski ziren 500.000 euro gatazka konpontzeko”, dio, behin eta berriro, Vicky Holgadok, enpresa-batzordeko buruak. “Ariznavarra egoitzako zerbitzua denon zergadiruarekin ordaintzen da, eta horko egoileak foru-sareko beste edozein zentrotan ere egon daitezke, zerbitzu-kalitate hoberekin gainera. Kalitatea hobetzea, hain zuzen ere, ezinbestekoa da gatazka amaiarazteko”.

Langileek beti esan dute: “Hutsegite larria da ongizate sozialeko zerbitzu publiko bat azpikontrata batek kudeatzea”. Ariznavarra da Araba osoko adibide bakarra. “Eta horrela jarraituko du izaten”, diote, ireki diren zentro berrien kudeaketa publikoa baita, zenbait zerbitzu (elikadura, garbiketa...) kanpoan kontratatzen badira ere. Horren adibidetzat aipatzen dute Lakua egoitza berria: “Eredu baten hedapena gerarazi egin dugu, hots, publikoak diren zerbitzu sozialak irabazi-asmoko kudeatzaile pribatuen esku jartzen dituen ereduarena”. Greba-garaiko pasadizo bat gogoratu digu María Eugenia Nagorek: “PPko parlamentari batek ere aitortu zigun, protesta-elkarretaratze batean, eredu horren hedapena gerarazi egin genuela”. Vicky Holgadoren ustez, “lehenbiziko grebarekin, 2002arekin, gerarazi genuela uste dut nik”. Ariznavarrako kasuari dagokionez, hau dio enpresa-batzordeak: “Arabako Aldundiak 7 milioi euro





## Greba 2 hitzetan

Jose Zubiaur • Metaleko arduraduna

### “Zintzotasuna eta duintasuna”

Izugarria izan zen garaipena. Ezin da kontatu; bizi egin behar da. Dena dela, amaierako hitzarmena iritsi zenerako, lanik gehiena, gogorrena, egina zegoen. Greba honek erakutsi digu, beste zenbait gauzaren artean, antolakuntzak eta afilia-

zioak lorpen handiak ekar ditzaketela.

Batasunari eustea ez da beti erraza izaten, baina kalera irten eta gatazka plazaratu egin behar da. Lanera ez joate hutsagatik, inork ez du jakiten greban zaudenik.

jartzen ditu, urtean, enpresa bat zentroaz ardura dadin, baina ez da beste ezertaz arduratzen”. Aldi berean, Arabako funtzionarioen kopuruak gora egin du, eta horrek garestitu egin dio Aldundiari soldata-kostua. “Horretarako, joera hori amaiarazteko, asmatu zuten Ariznavarrako formula. Behin-behinekotasuna, noski, geure kontu”, diote langileek.

Borrokari legitimotasuna kentzearen politikariek etengabe errepikatu duten lelo aspergarri bat entzun behar izan dute urteotan langileek. “Mila bider esan dugu ez dugula funtzionario izan nahi, ez baitugu horretarako oposiziorik edo antzekorik aprobatu”, diote, behin eta berriz. “Administraziora atzeko atetik sartu nahi izatea egotzi digute, baita ez dakit zenbat gauza gehiago ere”, gogoratu digu Beni Rubiok. “Herritarrak gure aurka jartzeko ahalegin merkeak baino ez ziren, eta ez zuten helburua lortu”. Dena den, negoziatzat jo dute beti “lan bera, soldata bera” dioen printzipioa. Arabako sare publikoko beste egoitza batzuetatik elkartasun-mezurik jaso ez arren, ELAko ordezkarien ustez “primeran etorri zaie funtzionarioei azpikontratazio-sistema hori indargabetu izana, zeren eta aurrera egin izan balu hurrengoak eurak izango baitziren”. Argi geratu da, beraz, Ariznavarrako grebak, hango langileen soldatak eta lan-kondizioak hobetzeko ez ezik, beste zerbaitetarako ere balio izan zuela: enplegua behin-behinekotzeko, enpresa batzuei negoziua egiten uzteko

eta, gainera, zerbitzu sozial okerragoa emateko diru publikoaz baliatzen den pribatizazio-eredu baten aurka egiteko. “Gogor borrokatu gara kalitateko zerbitzu sozialak eskaintzen dituen sistema publiko baten alde”, diosku Nerea Peñak.

## 5 Lanerako lehengaia: laguntza behar duten gizon-emakumeak

Zerbitzu sozialetako eredu mistoari (jabetza, publikoa; kudeaketa, pribatua) aurre egiteaz gain, Ariznavarrako grebak bazuen beste alderdi bat ere, konplexuagoa, industriako —adibidez— gatazka tradizioaletan agertzen ez zena: lanerako lehengaia gizon-emakumeak ziren, adineko jendea, eta haiek artatzen jarraitu beharra zegoen. “Greba egiten bada, zerbitzuak nahitaez nabaritu behar, baina inor ez zen geratu arretarik gabe greba zela eta”, dioskute ELAko ordezkariak. Gutxieneko zerbitzuak oso zorrotzak ziren, baina, hala eta guztiz ere, Arabako Aldundiak bitan (gutxiarik) zigortu zuen Mapfre-Quavitaen artapen desegokiagatik: lehenbizikoan, 2009ko apirilean, 44.400 euroko isuna jarri zion; bigarrenengoan, hurrengo urteko apirilean, 62.400 euros (azken kasu horretan, nahitaez bete beharreko zenbait lanpostu hutsik edukitzeagatik). “Nolanahi dela ere, egoitzako zaharren senideek ez ziguten inongo laguntzarik eman”, zehaztu dute.

Bestalde, greba hasi eta handik zortzi hilabetera (2008ko irailean), Arabako Aldundiak utzi egin zion Ariznavarrara adinekoak bidaltzeari. Hori zela eta, egoitzaren erdia baino gehiago hutsik zegoen 2010eko erdi aldera, eta administrazioak bi milioi eurotik gora aurreztu zituen Mapfre-Quavitaeri kudeaketagatik ordaindu beharreko kanonetik (artatzen den adineko bakoitzeko ordaintzen da). “Paradoxa dirudien arren, grebak

ondorio hau ekarri zuen: geroz eta hobe zen zerbitzua, jende gutxiago artatu behar baitzen, hobe baitzen langile/egoile ratioa. Kalkuluak egitea besterik ez dago”, diote ELAko ordezkariak: “Geroz eta egoile gutxiago zegoen, eta izugarriak ziren gutxieneko zerbitzuak”. “Zerbitzuaren kalitatea grebaldi osoan bermatuta egon zen”, eta horren froga garbia da “Arabako Aldundiak egoileak beste egoitza batzuetara eramatea proposatu ziela senitartekoei eta ia inork ez zuela onartu proposamena. Beraz, hain gaizki ere ezin ziren egongo”. 2008ko apirilaren 22an, grebak bi hilabete apenas ez zituela, Arabako Batzar Nagusiek “egoitzarako koordinazio-protokolo bat, otorduen antolakuntza egokia eta instalazioen mantentze-lana bermatzearen” ezartzeko eskatu zioten Aldundiari.

Alde horretatik, gizon-emakumeak “lehengaitzat” edukitzeak (nolabait esatearren) are zailtasun gehiago dakar zenbait sektoretan (osasun- eta gizarte-arloan, adibidez) lan-gatazkei ekitean. Agintari politikoek eta enpresak xantaia egiteko erabiltzen dituzte egoileak. Senitartekoak ere kontuan izan behar dira, noski, zilegitasun osoz eta tinko aldarrikatzen baitute beren gurasoen, aitona-amonen eta abarren ongizatea. Alde guztiek aipatzen zuten, gehiago edo gutxiago, greban ziren langileen profesionaltasuna, baina ez “beren lana egiteko konpromisoa” soilik, baizik eta langileen “sentikortasuna” ere tartean jarritz. “Gizon-emakumeekin lan



egiten duzue; zuen lana ez da torlojuak estutzea” esaldia (era askotara esana) maiz entzun behar izan zuten Ariznavarran. “Ez zen erraza izan, guretzat, grebara jotzea, egoileekin lotura afektiboa baikenuen —sendo-agoa batzuek, ahulagoa beste batzuek—, eta inor arretarik gabe geratzetik nahi ez genuen lehenak geu ginen”.

Baldintza horiek guztiak kontuan izanik, dagokien testuinguruan jarri behar dira greba-garaian hartutako erabaki batzuk. Arabako prentsak (Diario de Noticias de Álava, 2008ko urriak 4 eta 8) zioen “Aldundiko arduradun batek begiratuko du berriro Ariznavarrako egoileak arreta gabe gera ez daitezen; bestalde, barrutik kontrolatuko du egoitza, eta senitartekoen kexuak bideratu ahalko ditu”. Sasoi hartan, lau egoile, senitartekoen hala eskatuta, egoitzaz aldatu egingo zituztela jakinarazi zuen Aldundiak, baina gainerako zentroetan leku gutxi zegoenez, “oso zaila zen halako neurririk hartzea”. Bitan, gutxienik, epaitegietara iritsi ziren egoitzako zuzendaritzaren aurkako kexak, eta senitarteko –talde batek Arabako fiskalburuari ere bidali zion gutun bat, salaketa honekin: “Ariznavarrako medikuak lanez gainezka eta nahigabeturik dabilta; arropa-garbitegiko langileek gelak garbitu behar izaten dituzte, edo kafetegian zerbitzatu; errehabilitazio-teknikariek oinarritzko materiala eskatu dute, alferrik izan bada ere...”. Laburbilduz, hau salatzen zuten senitartekoen: “Mapfre-Quavitaek gastuak ahalik eta gehiena murrizten ditu, ez sineste-ko moduko neurriak ere hartuz, eta, zenbaitetan, duiontasunaren aurka ere joz”.

## 6 Gatazka kalera ateratzea, behar-beharrezkoa

Grebak bere horretan zirauen, dena den, alboko eztabaida horiek galgaturik. Batzuetan, eztabaida horiek ez zuten uzten arazoaren funtsa ikusten: ia ehun emakume (“eta hiru gizona”) beren lan-kondizioak hobetzerren (edo, gutxienik, lehendik lortutakoari eustearren) egiten ari ziren borroka. Greba hain luzea aurrera ateratzeko, ez da aski, ezta gutxiagorik ere, lanera ez joate hutsa. “Lanera ez bazoaz, ez du inork ere jakingo”, azaldu digute Ariznavarrako langileek. “Hori besterik ez baduzu egiten, ez diozu inongo arazorik sortzen enpresariari, batez ere gutxieneko zerbitzu hain zorrotzak baldiun baditu bere alde; bestalde, politikariei eta Aldundiari ere ez die eragiten aparteko deserosotasunik. Beraz, gatazka kalera atera behar da. Jendeak zer eskatzen duzun entzun orduko, aldatu egiten dira gauzak”.

“Grebak iraun zuen bitartean (ia hiru urte), normalean baino askoz lan gehiago egin genuen: asteburuak, jaiegunak, libre genituen egunak... Sakrifizio handia da”, gogoratu digute. Koherentziari eta diziplinari eustearren, jarduera-egutegi bat prestatu zuten. Funtsezko tresna izan zen hura, inprobisazioan edo desilusioan ez jausteko behar-beharrezkoa. Astelehenetan, adibidez, elkarretaratzea egiten zuten Arabako Aldundiaren aurrean; asteazkenetan, Batzar Nagusien aurrean; ostiraletan, berriz, langile-batzarra, astearen balantzea egiteko.

“Ehunka batzar egin genituen”, gogoratu dute. “Erabaki zuzena izan zen hori, zeren eta, grebaren martxari buruz informazioa eman eta jasotzeko ez ezik, elkarri animoa emateko ere baliagarri baitzitzaigun, batez ere une gogorrenetan, gatazkak jada zortzi hilabete, urtebete... zeramatanean eta konponbiderik ikusten ez zenean”.

Astearte eta ostegunetan, berriz, kalera, gizartera eramaten genuen gatazka, lau haizetara zabaltzen genuen. Hainbat azoka eta herritara joan ginen, megafoniadun furgoneta batean. Gasteizen ez ezik, Araba osoan ibili ginen. “Egia esan, furgoneta ez zen inoiz egoten geldi. Gurekin eduki



genuen bitartean, astelehenetik igandera ibiltzen zen bazterrik bazter, kea zeriola”. “Ordura arte sekula gidatu gabeak ginen, baina adorez beterik atera ginen errepidera, eta ez ginen hain gaizki ere moldatu —diosku Vicky Holgadok—: isun bat besterik ez ziguten jarri, eta kolpe bakar bat ere ez genuen izan”. Megafoniarena, berriz, ibiliaren poderioz ikasi zuten, eta zinta batean grabatu zituzten kontsigna ohikoenak. “Hasieran, egun osoan garrasi batean ematen genuen, eta ahotsik gabe geratzen ginen denok, bata bestearen atzetik”.

Gogoan izango dute oraindik ere arabarrek furgoneta hura, 2009ko otsailetik apirilera bitartean kaleak eta errepideak mezu argi eta ozen hau aireratzten ibili zena: “Non zaude, Xabier Agirre? Aldundia: konponbidea! Ariznavarra greban. ELA, euskal sindikatua!”.

Xabier Agirre (EAJ), sasoi hartan Arabako ahaldun nagusi zena, aipatzen dute ELAko ordezkariak gatazkaren erantzule nagusitakotzat, eta “aurrez aurre” jakinarazi zioten, gainera. Arabako zaindariaren eguna ospatzeko modu berezia bururatu zitzairen Ariznavarrako langileei, bitan gainera (apirilaren 28an biak, 2009an eta 2010ean), greba betean biak ere. “Dantzazalea da ahaldun nagusia (dantzaria, ez; hala nahi berak...), eta lagunak eta edozeinen aurrean atera ohi da dantzara, zaindariaren egunean, Armentia zelaian”, dioskute. Hara jo zuten, bada, grebalariek, ahaldunaren “loria-unetxoa boikoteatzera”. Bide batez, protestak prentsan eta gainerako komunikabideetan izan zuen oihartzun guztiz eskasa kritikatu zuten langileek. “Baina merezi izan zuen Agirre erabat lot-satuta ikustea”. Esan beharrik ere ez ahaldun nagusiak ez zuela hitz egin nahi izan grebalariekin, ezta Ongizate Sozialeko ahaldunak ere, Covadonga Solagurenak, eskari ugari —idatziz— egin zizkieten arren. “Greba amaitzean gustura hartuko gintuela esan zigun, batere lotsarik gabe, zer nolako hitzarmena lortu genuen azaltzeko. Baina ezta hori ere ez zuen egin”. Gogor kritikatu dute ELAko ordezkariak politikari hori: “Askotan esan du gezurra; adibidez, prentsan (Diario Noticias de Álava, 2010-6-19), non zioen Mapfrek % 9ko soldata-igoerak eskaini zizkigula. Gutako inork ez zuen ikusi, inoiz, halako eskaintzarik”.

Ariznavarrako gatazka kalera ateratzeko egin zituten beste ekintza batzuk (ohikoagoak) gogoratu dizkigu Ana Gonzálezek. “Gasteiz osoa

bete genuen kartelez, baina ahaleginak eta bi egin zituzten politikariek gure borroka ezkutatzearren: segituan agintzen zuten dena kentzeko, baita suhiltzaileei ere, beharrezko irudituz gero”. Ez dute hau ere ahantzi: “Greba amaitzear zela, Gasteizko suhiltzaileek eta udaltzainek erreibindikazio-pankartak eta kartelak kentzeari uko egin behar ziotela irakurri genuen prentsan. Hobe hilabete batzuk lehenago erabaki izan balute, ezta?”. Kartelez ez ezik, pegatinaz ere bete zuten hiria, eta, batez ere “garrasi egiten genuen, izugarri gainera. Beste batzuen protestak ikusten ditugu, orain, eta askoz ahulagoak iruditzen zaizkigu”.

Ariznavarrakoek garrasi egin behar bazuten, garrasi egiten zuten. “Iltaran jartzen ginen, eta inork ere ez zuen ihes egiten. Orduak ematen genituen horrela, batzuetan”. Gabonak iristear zirela grebalariek Gasteizen bitan jarri zituzten “informazio-karpen” originaltasuna aldarrikatzen du Beni Rubiok. “Ematen zizkiguten gabonetako saskiak eta txistorra banatzen genuen. Nahiago genuen hori guztia jendeari eman, gure egoeraren berri jakitera etortzen zen jendeari alegia”. Aurrera egin ez zuten zenbait proposamen ere egin zen; besteak beste, itxialdi bat egitekoa, edo lekuren batean beren burua katez lotzekoa. Aitzitik, beste proposamen honek aurrera egin zuen: Mapfreren egoitza nagusiaren aurrean, Madrilen, manifestazioa egitekoak. “2010eko otsailaren 17a zen. Hara joan ginen, bada, ikaragarritzko hotza egiten zuen egun batean, Gasteizen gertatzen ari zena bertatik bertara jakinaraztera enpresari”.

## 7 Femenino plurala: emakume solidarioak

Emakumezkoen greba izan zen, zalantzarik gabe, Ariznavarrakoa, baina egia da, halaber, hiru gizonezko ere bazirela tartean. “Lehen, emakumeek etxean zaintzen zituzten beren adineko senitartekoak; orain, egoitzetan, lan asko eginez, gutxi eta berandu kobratuz”. Horra María Eugenia Nagoreren diagnostikoa, argi askoa. Ez dator bat iritzi hori hain zabaldua dagoen uste honekin: genero-berdintasuna etengabe ari da aurrera egiten, historiaren edo denboraren aginduz bezala. Bada, kontuak ez dira horrela: “lorpenik nahi bada, bultza egin behar da, indarra egin, eta inoiz ez etsi”. Atsedean hartzeko geldituz gero, ia oharkabean egiten da atzeraketa. Gasteizko egoitza honetako ELAko ordezkariak azaldu digutenez, emakumeen borrokak Ipar Polara doan espedizionario-talde baten ibileraren antz handia du. Gogor ekiten diote bideari, kilometroz kilometro, haize zakarrari eta hotzari aurre eginez, baina, oinen pean, itsasoaren gainean labaintzen da bankisa polarra, kontrako noranzkoan, gehienetan. Aurrera ari direla ematen du, baina, askotan, ispilatzea baino ez da izaten. Izan ere, gure kontrolpetik kanpoko indarrek eta gure lanaren aurkako inertziek moteldu (edo ezereztu) egiten dute hainbat aste edo hilabeteetako lana.

“Soldata duina jasoko bagenu ere, lan hau ‘emea’ izango litzateke; ikuspegi hori da nagusi”, diote Ariznavarrako ELAko ordezkariak. Aldiz, langile ia guztiak emakumezkoak izatea lagungarri izan zen grebak aurrera egiteko. “Proporzioa alderantzizkoa izan balitz, hots, 92 gizonezko eta hiru emakume, seguru beste era batekoa izango zatekeela gatazka; beharbada —diote— ez zen hain ondo amaituko, beharbada erasokorra goa izango zen”. Oso errotua dago uste hori langile emakumezkoen artean, eta ez da kontu erraza horren zergatia argitzea. Diotenez, “emakumeok errazago adierazten dizkiogu elkarri gure arazoak eta beldurrak, errazago laguntzen diogu elkarri, irekiagoak gara elkarrekin. Ostiralero batzarrak ditugu horren adierazgarri, norberak barruan zeraman guztia azaltzen baitzuen bilera haietan”, dioskute. “Den-dena kontatzen genuen batzar haietan: zer gertatzen zitzaigun, animoz nola genbiltzan... Izan ere,

askotan ez zen izaten kanpoko berri handirik, negoziazorik, bilerarik politikariek...”.

Pazientzia izan zen beste funtsezko osagai bat. Ziur ziren langileak bidea luzea izango zela, eta, horregatik, halako erritmo bat behar zen, jarraitutasuna. Maratoiak ez dira irabazten, izan ere, bat-bateko erasoaldiak eginez eta testosterona-bulkadaz. Grebak urtebete egin zuenean, 2009ko martxoan (Lan Deia), gatazkaren gogortasunaz mintzatu ziren hiru grebalari (Nerea Peña, Eva Durán eta Elisa Rodríguez), emakumeen ikuspegitik batez ere: “Urte osoa gauza bera pentsatzen ematen dugu. Grebaren arabera antolatzen ditugu gure bizitzak. Psikologikoki oso indartsu egon behar da. Lehen, lanetik irten eta deskonektatu egiten genuen; orain, ordea, ezin dugu. Lo hartzea ere gehiago kostatzen zaigu (...). Zorionez, gure arteko harremana bikaina da, eta aurrera egiteko indar handia ematen digu horrek”. Zailtasunak zailtasun, argi izan zuten beti zein zen helburua, eta beti ikusi zuten halako argitxo bat (oso ahula, batzuetan), ñirñirka, tunelaren beste muturrean. “Gaur, egun bat gutxiago falta da gatazka konpontzeko. Urtebete gutxiago, agian”.

Bereziki kritikatzten dute ELAko afiliatu hauek Covadonga Solaguren (EAJ), Arabako Aldundiko Gizarte Gaietarako diputatua: “Ez sinestekoa da bera ere emakumea izanik b atere sentsibilitaterik ez izatea gure kolektiboarekiko. Ez du jakin nahi, antza, emakume-aurpegia duela Ariznavarrako behin-behinekotasunak, eta hori ez dela kasualitatez gertatzen. Beharbada, bost axola zaio...”.

Garai hartan, grebaren lehenbiziko urtea igaroa jada, emakumezkoen borroka hautatu zuen ELAk Nazioarteko Emakume Langilearen Egunerako (2009ko martxoak 8) gaitzat. Izan ere, hainbat gatazka zeuden martxan garai hartan Euskal Herri osoan, eta haien arteko elkartasuna ere nabarmendu nahi izan zen. Mahai-inguru bat egin zen Bilboko Arriaga antzokian, eta han izan ziren Residencias de Gipuzkoa (Cruz Menor), Limpiezas Impacto de Zornotza-Amorebieta (Eli Artetxe), Errenteriako Sabeco (Marisa Martín), Telemarketing Bizkaia (Begoña Rodríguez) eta Agifes (Jone Larrañaga) enpresetako ordezkariak, eta, noski, Ariznavarrakoak (Vicky Holgado). Hona hemen han esan ziren esaldietako batzuk, emakumezkoen borrokaren adierazgarri:



- “Diru publikoaz baliatzen dira, gizarteari ematen diogun zerbitzua-  
ren kontura enpresariak aberastu daitezzen”.
- “Pribatizazio gordina... gure lan-baldintzen kontura”
- “Borroka hau ez da irabaziko hotel handietako aretoetan, eliteen  
bileretan; kalean, eguneroko jardunean, irabaziko da”.
- “Ez dugu etsiko lan-baldintzak parekatzearen aldeko borrokan.  
Hitz politez nazkatuta gaude; ez diegu ezer sinesten”.
- “Antolatzea, afiliatzea... ezinbestekoa dela jabetu dira gure lanki-  
deak. Hasieran, sei afiliatu besterik ez ginen; gero, 11; gero, 17...;  
orain, 43”.
- “Telemarketina azpikontratatzan duten enpresak punta-puntako  
enpresak dira... behin-behinekotasuna zabaltzen”.

Bestalde, Ariznavarrakoak greban ziren bitartean, sektore horretako beste hainbat enpresatan ere bazen gatazkarik. Enpresa horietan guztietan, emakumeak ziren langile gehienak. Rehavital (Tutera) eta Faustino Orbegozo (Zumarraga) egoitzetako langileek ere greba luzeak egin zituzten gizarte-zerbitzuen azpikontratazioaren aurka eta horrek zekarren emakumeen enpleguaren behin-behinekotzearen kontra. Hortaz,

Ariznavarrako gatazka, luzeena eta gogorrena izanik ere, egoera jakin baten ageriko muturra baino ez zen izan, urte luzez ezkutuan egon zen diskriminazio-egoeraren lehertzea. Langile sufritu haien kontzientziazioak eta sindikalizazioak piztu zuen lehergaia.

## 8 Greba etxera ere iritsi zen

Ohiko grebetan, nekatuta iristen zen langilea (gizonezkoa) etxera; umore txarrez, zenbaitetan; kezkatuta, beti... Etxean, ohikoa zenez, familiararen babesa jasotzen zuen (emaztearena eta seme-alabena, normalean). Ariznavarrako gatazkan, paradigma hori desegin egin zen, baita jende askoren eskema mentalak ere. Egokitu egin behar izan ziren familietako ohitura asko, baita emakumeen rola ere, hamarkada luzez bere horretan zirauena. Orain, emakumea iristen zen etxera manifestazio baten ondoren; emakumeak eusten zion grebari hainbat hilabetez, eta, gainera, seme-alabez (txikiak) arduratu behar zuten askok. Ohiko rol-banaketak (gizona, borrokan; emaztea, gizona goxatzen) erabateko aldaketa izan zuen etxe askotan. Hemen dituzue aldaketaren zenbait adibide.

“Txikia zen nire alaba aurreko greban, 2003koan —gogoratzen du Vicky Holgadok—, eta orduan nabaritu genuen aldaketarik handiena. Oraingoan, zorte hobea izan dut; helduagoa zen eta ez nuen hainbeste zaindu behar”. María Eugenia Nagoreren alabak, berriz, adin zaila zeukan (8 urtetik 13ra) ama greban izan zuen garaian. “Helduoi luzea egin zitzaigun grebaldia, baina umeei, amaiezina. Hiru urte, haurtzaroaren erdian, asko da, ikaragarri”.

Ana Gonzálezek bi ume txiki zituen garai hartan (3 eta 6 urte, greba hasi zenean). Bere iritziz, “rol-aldaketa natural gauzatu zen; gure eskubideen alde ari ginen gu, eta, umeak, oso txikiak izan arren, gurekin etort-

zen ziren batzuetan (udan, batez ere) eta asko egoten ziren gurekin. Azken batean, greba familian ere sartu zen, eta gure eta gure seme-alaben bizitzako zerbait bihurtu zen. Grebak ez gintuen irentsi, baina han zegoen, egunero, hilero... Urtaro guztiak igaro genituen greban, umeen zenbait ikasturte...”.

Denek azpimarratu dute etxean jaso zuten laguntza: “Batzuetan, etxetik bota izan bagintuzte, ongi merezita izango genuen. Izan ere, umore txarrez iristen ginen askotan. Senarrak, bikotekideak, aiton-amonak... funtsezkoak izan ziren”.

Vicky Holgado beste alderdi bat aipatu digu (zaila, baina saihestezina horrelako prozesu luzeetan): “Oso une desatseginak eta zailak bizi izan genituen greba-garaian gaixotasun larriak diagnostikatu zizkieten lankide batzuekin, adibidez. Egoera normal batean, baja hartuko lukete eta, nolabait, haiekiko harremana eten egingo litzateke. Baina jende hori batzarretara etortzen zen, eta haien arazoak geure egiten genituen. Babestuta sentitzen ziren, eta, gainera, grebaren partaide ziren”.

Beni Rubiok dioskunez, “greba hitz batekin laburtu behar bagenu, “elkartasuna” litzateke hitz hori. Gure arteko elkartasuna, baina, baita ere, enpresakoa ez zen jendearekikoa”. Beni ez zen ELAko kide (gatazka amaitzear zela egin zen), baina primeran islatzen du gure erakundearen jarrera sindikala eta solidarioa. Hiru alabaren ama da —“helduak, jada, hirurak”—, eta hain zegoen ziur borroka “bidezkoa zela, ezen behin baka-riik azaldu behar izan nizkien gauzak; geroago, bolada txar bat jasan nuen, eta lana uztekotan ere egon nintzen. Senarraren eta alaben laguntzari esker egin nuen aurrera”.

## 9 Giroa puri-purian: hauteskunde sindikalak eta EEEda

Aipatzekoak dira enpresak gatazka-garaian egindako zenbait azpijoko ere: Ariznavarra egoitza saltzen ahalegindu zen, baita Mapfre-Quavitaeko osasun- eta gizarte-sektore osoa ere. Hasioeratik ohartu zen ELA enpresa eta Arabako haren arduradunak erabat gotortu zirela. Beraz, greba izugarri luzea eta nekagarria egin beharko zuten langileek, prestatuta egon beharra zegoen diru aldetik (erresistentzia-kutxa), baita animoz eta adorez ongi horniturik ere. Halaber, “erne eta adi” ere egon beharra zegoen, zer informazio sortuko. Hor agertu ziren, bada, Ariznavarra erosi nahi zuten enpresa haiek.

2009ko azaroan jakin genuen Mapfreak 12 milioi euroko prezioa jarri ziola geriatrikoaren transferentziari, eta Lagunduz enpresa bizkaitarrak proposamen hari erantzuna eman behar ziola. Lagunduz-ek, berriz, hitzarmena adostua zuen jada langileekin, eta bost urterako bermatzen zien laneko egonkortasuna. Luzatu egin ziren, ordea, negoziazioak, eta eta 2010eko maiatzean, “bederatzi milioiko eskaintza, azkena” egin zuen Lagunduzek. Ez zela nahikoa erantzun zioten.

Langileek diotenez, une hura (2010eko maiatzaren 3a) izan zen gatazkaren momenturik larrienetakoa. “Sindikatu bat behar zuen Ariznavarrako zuzendaritzak, hauteskunde sindikalak deitu zitzaizkion, ELAren gehiengo hautsi nahirik. Eta aurkitu zuen: CCOO. Greban ez zeuden hainbat langile (eskirolak, alegia, enpresarekin ondo moldatzen zen jendea) aurkeztu zituen CCOOk hauteskundeetara” diosku Vicky Holgadok. “Egoitzako zuzendariak ere eman zuen botoa (CCOOn alde, jakina)”. Hala eta guztiz ere, ELAko ordezkariak nagusitu ziren: eman ziren 140 botoetatik, 103 jaso zituzten. Beraz, zazpi ordezkari zituen ELAk, eta bi CCOOk. “Izugarrizko poza hartu genuen. Asko zegoen han jokoan, beste enpresa batzuetan ere ikusia baikenuen estrategia hori, hauteskunde bidez greba hausteko saiakera alegia”. Enpresak presioa egin zien behin-behineko langileei CCOOn alde eman zezaten botoa, eta, handik gutxira “kanpo-





ratu egin zituen botoa ELAri eman zioten behin-behineko langile guztiak”, gogoratu digute.

Langileak banatzeko eta greba hausteko ahalegin bakarra ez ez izan. “Nekatuta geunden; hilabete asko generamatzan greban”, diote. Handik gutxira, 2010eko uztailaren 7an, enplegu-erregulazioko espediente bat aurkeztu zuen Mapfrek. Ordurako, Sar enpresarekin negoziatzen zebilen zuzendaritza, osasun- eta gizarte-arloko sail osoa (Quavita) saltzeko asmotan. Bidea errazteko, “enplegu-erregulazioko espedientea (EEE) ezartzearekin egin ziguten mehatxu, eta bozkatu egin behar izan genuen langile-batzarrean”. Enpleguari eusteko aitzakiarekin, banakako atxikipe-nak jasotzeari ekion zion zuzendaritzak. Azkenean, ordea, langileek — ELAren jarrerak bultzatuta— enplegu-erregulazioari ez atxikitzea erabaki zuten. Gatazkaren bigarren guneko kritikoa izan zen, behin betikoa. 2010eko uztailetik abendura, salerosketa.-negoziazioekin jarraitu zuten Sar eta Mapfrek, baina bazekiten jada langileek ez zutela amore emango, bide horretatik ezingo zutela merkatu prezioa.

## 10 Argi-izpi bat tunelean: garaipen-eguna

Greba hartan Ariznavarrako langileak tunelaren beste muturrean argi-izpi bat ikusten noiz hasi ziren zehatz adierazi beharko balitz, 2010eko urriaren 28a jartzen dute datatzat langileek eurek. “Enpresak aldatu egin zuen egoitzako gerentea, gatazka amaiarazteko asmoz”, beharbada ohartua zelako langileek ez zutela amore emango. Edo, beharbada, langileen aldetik ikuspegi apalagotik begiratuta, “Mapfre-Quavitaek bazuelako bere osasun- eta gizarte-sektorea beste enpresari bati saltzeko eskaintza bat, eta hitzarmena adosteko baldintza ezinbestekoa zuelako Ariznavarrako gatazka konponduta uztea”. Gerora jakin zenez, azaroan erosi zuen Sar taldeak Quavitaee (Mapfreko osasun- eta gizarte-sektorea, % 57aren jabea; gainerako % 43a Caja Madridena zen). Salerosketa hark bultzatu egin zuen grebaren amaiera. Sasoi hartan argitaratu ziren albisteez zioenez, 30 milioi euro ordaindu zituen Sare-ek, Sar Quavitaee sozietatea sortzeko helburuarekin.

Baina hori guztia gerora jakin zen. Orduan, urriaren amaieran, sekulako bilera-maratoia hasi zen, sindikalismo negoziatzaileak ohi duen estilo-



ari jarraiki (“edozein ordutan deitzen zuten; negoziatzeko prest egon behar zen”), baina kontuz ibili beharra zegoen; izan ere, gatazka nekagarri hura behingoz bukatzeko gogoia zela eta, hainbat hilabetetako borroka emaitzarik gabe amaitzeko arriskua baitzegoen. Grebalariek ondo asko zekiten une kritikoa zela hura, eta, helburua jada bertan ikusten zutenez, arriskutsua gerta zekiekeen metatutako nekea. Helmuga metro batzuk harago eramateak izugarritzko hondamendia eragin ziezaiokeen neka-neka eginda zegoen langile-talde hari, baina bidezidorretik jotzeko tentaldia (inkontzientea), “gatazka behingoz amaitzeko” gogoia are arriskutsuagoa gerta zitekeen.

Gogoan du Ana Gonzálezek “inork ez zekiela konponbidea 2010eko abenduaren 16an etorriko zela; alde horretatik, ustekabean harrapatu gintuen. ELAren Gasteizko egoitzan geunden, batzartuta, eta hitzarmen-papera iritsi zenean, oso une hunkigarria izan genuen, eta han hustu genuen 30 hilabete luzez pilatutako tentsio guztia”. ELA-Gasteizko arduraduna, Luis Fernández, etorri zen, bat-batean, eta denok abiatu ginen, ziztu batean, PRECOrantz (lan-gatazkek konponbideratzeko erakundea), eta “sinatu egin genuen”.

Hitzarmenaren xehetasunak negoziatzen aritu zirenentzat, baina, gauzak ez ziren hain errazak izan, Vicky Holgadok gogoratu digunez. “Bezperatik genekien amaitua zela gatazka, baina ikusi genuen bazela puntu bidegabe bat, onartzerik ez zegoena”. Enpresak hau inposatu nahi zuen: teknikari diplomatuei ez aplikatzea adosten ari ziren soldata-igoera. Zalantza eragin zuen horrek negoziatzen ari ziren ELAko ordezkarien artean. “Baziren talde horretan greba osoa gurekin egin zuten bost lagun, eta ezin genituen bazterrera utzi”. Zalantzarik gabe, langileen batasuna hausteko Mapfreak asmatutako azken azpijokoa izan zen hura. Izan ere, teknikari diplomatuak hitzarmenean sartzeko modua hau zen: langile guztiek beren urteko soldataren % 0,15-ari uko egitea. Mila eta ehun egun baino gehiago igerian, eta kostatik hain gertu ito behar zuten?

“Tentsio-uneak izan genituen, eta jende guztia ez zegoen ados soldata-murrizketa harekin, baina, azkenean, bidezkoa iruditu zitzaiguna egin genuen. Eta erabaki zuzena izan zelakoan nago”. Hainbat eztabaida eta tirabiraren ondoren, urteko soldataren % 0,06koa izan zen murrizketa (12

bat euro urteko eta langileko), eta hitzarmena sinatu egin zen, une batez bertan behera geratzeko arriskuan egon eta gero.

María Eugenia Nagorek ondorio gisara dioskunez, “hitzarmen hoberik egitea egongo da, dudarik gabe, baina pozik egoteko nahikoa arrazoi badugu”. Beni Rubiok, berriz, beste hau dio: “Gu aintzat hartzea lortu genuen; ez digute berriro ziririk sartuko. Ez gara ez dakit zer eskatzen aritu diren lau zoro; lan gogorra egiten dugu, eta horren aintzatespena nahi dugu”.

Sasoi hartako sakrifizioak gogoratu ditu Ana Gonzálezek: “Nire seme-alabez gogoratzen nintzen, etengabe; greba amaitzean, berriz, lasaiago sentitzen naiz, merezi duten denbora eskaintzeko aukera baitaukat”.

Vicky Holgadok beste hau azpimarratzen du: “Laneko kondizio duina-  
goak lortu genituen. Geure burua errespetaraztea lortu genuen, eta, hemendik aurrera, ELAko batzorde hau oso kontuan izan beharko dutela ondo dakite zuzendaritzakoek”. Ez du, baina, ahaztu “hiru urte hauetako higadura. Garai hartako gure argazki bat eta gaur egungo beste bat alde-  
ratuz gero, bistakoa da zenbat sufritu dugun. Egia galanta da aurpegia arimaren ispilua dela dioen esaera, eta geure buruan ikusi dugu guk hori”. Garrantzizkoena: “Berriz ere gauza bera egingo genuke, zalantzarik gabe”. Marcos komandanteordearen esaera bat muturrera eraman dute emakumeok: “Borrokatzen bazara, baliteke galtzea; ez bazara borrokatzen, galduta zaude jada”.

Hala eta guztiz ere, badakite “hau ez dela bukatu; eutsi egin behar diogu irabazitako guztiari. Pauso bat ere ezin dugu egin atzeraka, beste-  
la, jan egingo gaituzte eta”.

## Grebak iraun zuen bitartean, ama-grebalariak edukitako umeak

Ariznavarrako grebaren giza alderdiaz ohartzeko, gogoratu beharra dago noiz jaio ziren 17 haur hauek: beren amak etorkizun hobeko baten alde borrokan ari zirela, alegia. Hauek dira haur horien izenak:

1. Igor
2. Orkatz
3. Ander
4. Iune
5. Igor
6. Hugo
7. Naia
8. Irati
9. Rakel
10. Amaia
11. Lucia
12. Daniel
13. Ugazi
14. Haiseder
15. Ane
16. Daniel
17. Silvia

## Gatazkaren hasiera hasieratik aritu ziren grebalariak

1. Sandra Aguilar
2. Alicia Aldekoa
3. Arantzazu Alducin
4. Lucía Alegre
5. Elena Alonso
6. Isabel Álvarez
7. Mónica Angulo
8. Teresa Antón
9. Amaia Arechavala
10. Elena Bello
11. Yolanda Briz
12. Ainhoa Carrizo
13. Susana Colominas
14. Marga Cuesta
15. Estíbaliz Díaz
16. Mikel Diéguez
17. Iratxe Domínguez
18. Eva Durand
19. Inés Eguilaz
20. M<sup>o</sup> Carmen Eguiluz
21. Rosi Espino
22. Guadalupe Felipe

23. Eva Fernández
24. M<sup>a</sup> Jesús Fontaneda
25. Rosa Lurdes Garcia
26. M<sup>a</sup> Jesús Garcia
27. Ana M<sup>a</sup> García
28. Sira García
29. Aurora Gil
30. M<sup>a</sup> Mercedes Gil
31. Nagore Glez. Zárate
32. Montse Gómez
33. Ana M<sup>a</sup> González
34. Amaia Guaresti
35. Mónica Guaresti
36. Pili Herrero
37. M<sup>a</sup> Victoria Holgado
38. Marta Izquierdo
39. Pili Jimeno
40. Elena Jorna
41. Yolanda Lázaro
42. M<sup>a</sup> Victoria Leonart
43. Mónica López
44. Laura Madrid
45. Carmen Marín
46. Rakel Martínez de Compañón
47. Mila Montero

48. María Montero
49. Marta Moraza
50. M<sup>a</sup> Eugenia Nagore
51. Rebeca Ochoa
52. Ana Ochoa de Aspuru
53. Rebeca Paino
54. Nerea Peña
55. Ángela Pérez
56. Juli Perianes
57. Rosa M<sup>a</sup> Prada
58. Marta Preciado
59. Patricia Ramírez
60. Beni Rubio
61. Erika Reyes
62. Ana Rincón
63. Estela Riva
64. Elisa Rodríguez
65. Nuria Rodríguez
66. Ohiana Ruiz del Portal
67. Loli Sabaté
68. David Sáez
69. M<sup>a</sup> Cruz Sáez
70. Álvaro Sáez de Vicuña
71. Eider Sánchez
72. Maite Santamaría



73. Isabel Rebollo Santiago
74. Mamen Santiago
75. Begoña Sanz
76. Tatiana Sastre
77. Nieves Tamayo
78. Ana Torrecilla
79. Blanca Uncella
80. Vanessa Uzal
81. Sonia Valdeón
82. Vanessa Vélez
83. Carmen Vicente
84. M<sup>a</sup> Carmen Visa
85. Ainhoa Viteri
86. Esther Yera
87. Mónica Zarate
88. Estíbaliz Zuñiga
89. Sandra Román
90. Silvia Sánchez
91. Belén Montero

## Irabazi duzue

Eran 18 los días transcurridos  
Era el segundo mes  
Era el 2008

Dijísteis que ya bastaba  
Que ante todo... la dignidad

Hemos admirado a muchas mujeres  
Nos han estremecido infinidad de mujeres  
Mujeres de fuego  
Mujeres de nieve  
Pero lo que más nos estremece  
Son las mujeres que luchan  
Y hoy... habéis sido vosotras

Cuántas horas de intemperie  
Centenares de carteles  
Decenas de pancartas  
Miles de papeles

Lágrimas derramadas  
Vorágine de impotencia

Bainan esperantza  
Ez genuen sekulan galdu

Os condenaron a lluvia sin motivo  
Y desde entonces vivimos  
Ahogados en el deseo de vuestra pelea

Los poderes públicos  
Insisten y persisten  
En coleccionar neoliberales absurdos

Os convidaron a arrepentiros  
Os convidaron a indefiniros  
Os convidaron a tanta mierda

Pero desconocían  
Que lo que brilla con luz propia  
Nadie lo puede apagar  
Ni siquiera el lucro y la codicia  
Que forman la patronal

Y es que el sueño  
Se hace a mano y sin permiso  
Arando el porvenir  
Con grandes dosis de solidaridad

Bainan esperantza  
Ez genuen sekulan galdu

Os aferrasteis a vuestros principios  
Nos superasteis  
Nos dejasteis sin palabras

Habéis ganado  
Hemos ganado

Sembraron miseria  
Y han cosechado furia.  
Los delimitadores de las primaveras  
Han visto florecer el jardín

Supisteis entender la utopía  
Como suscitadoras de ideologías  
Capaces de modificar la realidad existente

Habéis ganado  
Hemos ganado

Hoy no es día inteligente  
Y no sé ir más allá

GASTEIZKO ARIZNAVARRAKO GREBA  
DUINTASUNEZKO 2 URTE, 9 HILABETE ETA 17 EGUN

Hoy es día de alegría  
Hoy es momento de júbilo  
Pero cuando podáis... volver  
Os necesitamos  
Zeren eta esperantza  
Ez genuen sekulan galdu

**Karlos del Rio**